

Prentsa oharra

Nota de prensa



Garapen Ekonomiko
eta Enplegua
Desarrollo Económico
y Empleo



DONOSTIAK GABONETAKO ARGIZTAPEN INDARTUA PIZTUKO DU AZAROAREN 26AN

Datorren ostiralean, azaroak 26, Gabonetako argiztapena piztuko da eta aurten hiriko auzo gehienetako 110 kale, plaza eta biribilgune argiztatuko ditu.

Egun hauetan, kaleetan egiaztatu da apaingarri eta argi-arku asko jarrita daudela, eta datozen asteetan lan hori errematatu egingo da. Garapen Ekonomikoko zinegotzi Marisol Garmendia sozialistak adierazi duenez, “aurten ahalegin handia egin dugu gabonetako argiztapena hobetzeko, pandemiaren ondoren normaltasun apur batean ospatzen ditugun lehenak garelako, eta horrekin merkataritza eta ostalaritza suspertzen lagundu nahi dugulako, batez ere osasun-krisiak eragindako mugak pairatu dituztelako. Jendea Donostiara eguberriez goatzera etortzea nahi dugu, egun hauetan ere oportetako helmuga izatea.”

Garmendiak adierazi duenez, Gabonetako argien inbertsioa 410.000 eurokoa da (BEZa barne), 2019an baino %4 gehiago eta 2020an baino ia bi aldiz gehiago, urte horretan pandemia bete-betean ospatu baitzen Gabonak. Donostiako Sustapenak Donostia Shops plataformaren laguntza ekonomikoa du hiria girotzeko eta argiztatzeko.

Prensa oharra

Nota de prensa



Nobedadeen artean, Zurriolako zubiko farolen argiztapena, Alde Zaharreko edo Loiola kaleko hainbat kaletako argien sabaiak, Easo Plazako argien pergola, Konstituzio Plazako liburutegiaren eraikinaren argiztapena, Antso Jakitunaren hiribideko zuhaitzetan jarriko diren argiak, Alderdi Ederreko eta Katalunia Plazako gabonetako bola, Pio XIIko Plaza eta Maria Cristina hotelaren fatxadan eta beste elementu batzuk.

Atrakzioei dagokienez, 36 metroko noria Alderdi Ederreko itzuliko da, karrousel izei bat Cervantes plazan jarriko da eta noria txikiago bat autobus geltokian jarriko da, Gabonetako azokaren ondoan.